

JARDUKETA IZENA Iturengo arrain-haztegiko presa eraistea (C8)

Zer KBETan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

2 gunek lotzen dituen ibai korridorean: Bidasoa Ibaia KBE eta Belate KBE.

LOTURA NATURA 2000ekin

Ekintza KBEa Kudeatzeko Planaren helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:

- Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur korridorean dauden oztopoak iragazkortzea.
- 1.2.1. Helburu Operatiboa. Ibai Sistema kudeaketarako funtsezko elementuaren ur ibilietako ur emarien erregimena hobetzea.
 - 1.7. Neurria: Jarraipena ematea Nafarroako Gobernua Bidasoaren arroan gauzatzen ari den neurriei presak iragazkortzeko eta eraisteko.
- 5.1.2. Helburu Operatiboa. Izokin arruntaren, kolakaren, itsas lanproiaren eta burtainaren habitataren baldintzak hobetzea.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen KBEko funtsezko zer elementuk jaso duten onura: "Ibai-sistema", "Ibai-habitatak", "Izokin arrunta, kolaka, itsas lanproia eta burtaina", "Bisoi europarra eta igaraba arrunta" eta "Muturluze piriniotarra".

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Ituren

Data

2016

Aurrekontua

276.000 €

Proiektuaren ekintza loturikoak

Jarraipen geomorfologikoa egitea, eta halaber, arrain-espezieen eta ugaztun urtarren jarraipena egitea

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Lanaren helburua da Iturengo arrain-haztegiko presa eraistea, eta eraistea, halaber, arrain-eskala eta ura hartzeko ubidea, ibaiaren konektibitatea hobetzea, espezieen joan-etorria erraztea, eta tarte horretan, uholde arriskua murriztea.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Ezkurra ibaiaren azken tarte Bidasoa Ibaia KBEEan sartuta dago. Bestalde, Belate KBEEan Ezkurra ibaiko goi-ibarreko errekek daude, eta fauna-balio oso garrantzitsuak ditu, hala nola muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*), erreka karramarroa (*Austropotamobius pallipes*), burtaina (*Cottus aturi*), etab. Eraitsi beharreko oztopo sorta batek fauna urtararen mugimenduak zaildu edo eragozten ditu KBEEan, eta horrek eragin handiagoa edo txikiagoa du, espeziearen arabera eta urte hidrokologikoen unearen arabera.

Ekintza honen bidez, Ezkurra ibai-tarte batean dagoen presa eraitsi nahi dugu; ez dago Natura 2000 Sarean sartuta, baina arestian aipatu ditugun 2 gunek lotzen dituen ibai korridorean dago: Bidasoa Ibaia KBE eta Belate KBE.

Jarduketa eremua Ezkurra ibai-ibilguan dago, hau da, Bidasoren ibaiadar nagusian; urak Donezteben lotzen zaizkio Bidasoa ibaiari.

Oztopoaren jabea Nafarroako Gobernua da. Mendez mende, presa txiki horrek hainbat erabilera izan ditu; hasieran, erroarako erabili zen; gero, erabilera hidroelektrikoetarako, eta azkenik, arrain-haztegi bat ustiatzeko. Gaur egun, ez da deusetarako erabiltzen. 5 m inguruko oztopoa da, eta arrainendako eskala badu ere, nekez gainditu dezakete, salmonidoek barne.

Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA

Presa, arrain-eskala, ura hartzeko ubidea eta arketa eraistea: presa 27 m da luzeran, eta huraxe ezabatuz, hari loturiko ur bilduko eremua ezabatuko da. Eskuinaldeko arrain-eskala eraitsiko da: 1,9 m da zabalera; 40,5 luzeran, eta 5,5 metroko desnibela du. Arrain-eskalaren ondoan, higadura handi bat dago, arketa batek eragindakoa, euri-uren hodi bat jasotzen duena, baina inolako aterabiderik ez duena; arketa ezabatu eta euri-urei aterabidea emanen zaie. Halaber, ura hartzeko ubidea ezabatuko da; ezkerraldean dago, hormigoi armatuzkoa da, eta 290,6 metroko luzera du.

Ibaiertzak egonkortzea: Ibaiertzetan aldaketak gertatuko direlakoan, proiektuak hainbat lan aurreikusi ditu ibaiertzak sendotzeko, ibaian goiti higadurak arazorik sor ez dezan. Horrela, 100 m inguruko krainer horma bat egingen da presatik gora, ezkerraldeko ibaiertzean.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? - ESPERO DIREN EMAITZAK

Honelako emaitza kuantitatiboak espero dira:

- Ibai Konektibitatea adierazlearen balio hau lortzea: **“Oso ona**. Oztoporik ez”. 6 bat km lortuko dira ibaian oztoporik gabe.

- Azpiegitura horri loturiko tarte lentiko artifiziala bere osoan ezabatzea (500 m), ibaiak bere hasierako posizioa har dezan, bai eta dagozkion funtzio ekologikoak ere.



